

La muerte de Antonio Arzác en la Habana



«Euskal-Erria»-ren zuzendari jauna:

Nere lagun eta adiskide maitea.

Gaur irichi da nigana berri bat oso tristea. Gaur arte, nonbait nere urrutiko ibilleraz elkarren albisterik izatea errez etzalako, ezdet jakindu gure maisu argidotar on Antonio Arzac ill zala. ¡Gisajoa! Doakabe guzien laguntzalle maitatiya zana, orain, Ama-euskararen alboan bizituzia premizkoena zan garayan, ala-bearrak eraman digu sorter ritik bera ainbeste bider begira egote zan goi urdiñera.

Ill da, ill da; illotzik dago, baña ez ala Jose, Marichu eta Zerura-n bere animaren likurt zerutiya utsi zigunaren izen illezkorra; au beti uztargiturik biziko da gure megopean.

¡Bedeinkatua izan bedi bere oroimen dontsua!

Bigaltzen det zure bitartez aren guraso eta echetar guzien biotz erituetara nere kupitasunezko sentierik egizkoena.

Agur; eta zuk artzazu nere bizitz urrutikoaz geituba dagon maitetasunaren laztan aldiya.

EMETERIO ARRESE.

Habana-n Otzaillaren 2^{an} 1905-garren urtean.»